ZERGA ITUNDUEN DIRU-BILKETA BIZKAIAN

2022KO URTARRILA

# I. KOPURU GLOBALAK

## a) Bildutako zenbateko likido osoa

Pandemia-egoerak oraindik bere horretan dirauela eta horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko zergadunek tributu-betebeharrak betetzeko orduan duen eragina kontuan hartuta, urtarrilaren 17ko 118/2022 Foru Agindua onetsi zen, zeinaren bidez 2022ko urtarrilaren 31ra arte luzatzen baita muga-eguna 2022ko urtarrilaren 25ean duten aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko epea. Horren ondorioz, diru-sarreren bolumen handi bat otsailera geroratu zen.

Horregatik, urtarrilera arte tributu itunduak direla-eta bildutako zenbateko metatuak % 58,8ko beherakada izan du, iazko urtearen aldera. Guztira, 328,1 milioi euro bildu dira; 2021. urtean, berriz, 796,3 milioi euro bildu ziren. Beraz, diru-bilketa likidoan 468,3 milioi euroko diferentzia negatiboa dago, eta ekitaldirako aurrekontuan jasotako kopuru osoaren % 3,9 da bildutakoa, 8.386,9 milioi eurokoa baita aurrekontua.

Hil honetan Estatuarekin doikuntzarik egin behar ez denez (apirilera arte foru-aldundien artean ere ez dira lehen doikuntzak egiten), gestio propioagatik bildutako kopurua ehuneko berean murriztu da, % 58,8n.

| URTARRILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | % |
| Diru-bilketa likidoa | 328.078,6 | 796.342,4 | -468.263,8 | -58,8 |
| FFAAen barneko doikuntza guztira | 0,0 | 0,0 | 0,0 | |
| Berezko kudeaketaren tributu itunduak | 328.078,6 | 796.342,4 | -468.263,8 | -58,8 |
| Guztizko doikuntza Estatuarekin | 0,0 | 0,0 | 0,0 | |
| TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA | 328.078,6 | 796.342,4 | -468.263,8 | -58,8 |
| Gauzatze-ehunekoa | %3,9 | %10,8 | | |

### b) Diru-bilketa gordina eta kudeaketa propioagatko itzulketak

Sartzeko epearen luzapenak eragin nabarmena izan du kudeaketa propioko tributu itunduen ondoriozko diru-bilketa gordinean, zeina 404,2 milioi euro izan baita. Kopuru hori aurreko urtean lortutakoa baino % 52,2 gutxiago da (iaz, 846,1 milioi euro izan ziren). Bestalde, itzulitako kopuruetan ez da eraginik izan. Aitzitik, % 53,1eko igoera izan dute: iaz 49,7 milioi euro bildu ziren, aurten, berriz, 76,1 milioi euro. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 58,8ko beherakada izan du.

| URTARRILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | % |
| Diru-bilketa gordina | 404.207,5 | 846.078,4 | -441.870,9 | -52,2 |
| Itzulitakoak | -76.128,9 | -49.736,0 | -26.392,9 | 53,1 |
| Berezko kudeaketaren tributu itunduak | 328.078,6 | 796.342,4 | -468.263,8 | -58,8 |

## II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Diru-sarrerak otsailera geroratzeak zuzeneko zergetan zein zeharkakoetan izan du eragina. Zuzeneko tributuen ondoriozko diru-bilketa likidoa % 64,1 txikiagoa izan da aurreko ekitaldian lortutakoa baino: aurten 233,7 milioi euro bildu dira, eta beherakada izan dute bai diru-bilketa gordinak (-% 63,8), bai itzulitako kopuruek (-% 16,5). Zeharkako tributuetan, 92,3 milioi euro bildu dira, hau da, % 34,7 gutxiago. Diru-bilketa gordinak behera egin du (-% 11,8), eta itzulitako kopuruek gora egin dute (% 60,3). Tasak eta beste diru-sarrera batzuk % 48,7 txikiagoak izan dira; zehazki, 2,0 milioi euro bildu dira aurten, eta aurreko ekitaldian, berriz, 4,0 milioi.

| URTARRILAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Diru-bilketa gordina | | | Itzulitakoak | | | Diru-bilketa likidoa | | |
| mila eurotan | 2022 | 2021 | diferen. | 2022 | 2021 | % | 2022 | 2021 | % |
| Zuzeneko zergak | 237.513,5 | 655.467,5 | -63,8 | 3.813,9 | 4.567,8 | -16,5 | 233.699,7 | 650.899,7 | -64,1 |
| PFEZa | 223.523,8 | 604.208,9 | -63,0 | 2.792,7 | 2.944,3 | -5,2 | 220.731,2 | 601.264,6 | -63,3 |
| Sozietateen gaineko zerga | 7.723,9 | 43.130,4 | -82,1 | 545,1 | 550,6 | -1,0 | 7.178,9 | 42.579,7 | -83,1 |
| Gainerako zuzeneko zergak | 6.265,8 | 8.128,3 | -22,9 | 476,1 | 1.072,8 | -55,6 | 5.789,6 | 7.055,4 | -17,9 |
| Zeharkako zergak | 164.565,4 | 186.517,8 | -11,8 | 72.223,3 | 45.048,8 | 60,3 | 92.342,1 | 141.468,9 | -34,7 |
| BEZa | 135.502,7 | 51.098,7 | 165,2 | 72.203,4 | 44.881,8 | 60,9 | 63.299,3 | 6.216,8 | 918,2 |
| BEZa barneko doikuntza | | | | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Zerga bereziak | 19.286,7 | 123.323,3 | -84,4 | 0,0 | 156,6 | -100,0 | 19.286,7 | 123.166,7 | -84,3 |
| Gainerako zeharkako zergak | 9.776,0 | 12.095,8 | -19,2 | 19,9 | 10,4 | 90,2 | 9.756,2 | 12.085,3 | -19,3 |
| Tasak eta Bestelako Sarrerak | 2.128,6 | 4.093,2 | -48,0 | 91,8 | 119,4 | -23,1 | 2.036,8 | 3.973,7 | -48,7 |
| BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA | 404.207,5 | 846.078,4 | -52,2 | 76.128,9 | 49.736,0 | 53,1 | 328.078,6 | 796.342,4 | -58,8 |
| Doikuntzak Estatuarekin | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | |
| Doikuntzak BEZa | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | |
| Doikuntzak Zerga bereziak | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA | 404.207,5 | 846.078,4 | -52,2 | 76.128,9 | 49.736,0 | 53,1 | 328.078,6 | 796.342,4 | -58,8 |

## a) PFEZa

Iazko urtarrilarekin alderatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 63,3 egin du behera, batetik, diru-bilketa gordinak % 63,0ko beherakada izan duelako, eta, bestetik, itzulitako kopuruak beherakada txikiagoa izan dutelako (-% 5,2).

Osagai guztiek emaitza negatiboa dute. Murriztu egin dira kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak (-% 98,3), ondare-irabazien gaineko atxikipenak (-% 77,4), lan-etekinen gaineko atxikipenak (-%60,6), lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuak (-% 89,2) eta kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenak (-% 90,8). Kuota diferentziala ere murriztu da, % 2,6n.

## b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentzialak % 12,2 galdu du, eta 5,2 milioi euroan geratu da; iaz, berriz, 5,9 milioi euro izan zen. Bildutako zenbateko gordina % 16,7 jaitsi da, eta itzulketen bolumena (0,2 milioi) % 69,7 gutxitu da. Aurreko epigrafean aipatutako gainerako tributuak kontuan hartuta, zerga honetan % 83,1 gutxiago bildu da: 2021eko urtarrilean 42,6 milioi euro bildu ziren, eta ekitaldi honetako urtarrilera arte, berriz, 7,2 milioi baino ez.

## c) Gainerako zuzeneko zergak

Zuzeneko zergapetzearen gainerako tributuen diru-bilketa likidoa % 17,9 gutxitu da: iaz, urtarrilera arte, 7,1 milioi bildu ziren, eta aurten, berriz, 5,8 milioi. Honako hauek jaitsierak erregistratu dituzte: -% 13,3, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, eta -% 87,1, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan; ondarearen gaineko zergak, berriz, % 56,4ko igoera izan du, eta energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergak aurreko ekitaldian 0,8 milioi euroko saldo negatiboa izan zuen, aurten, berriz, 0,1 milioi euroko saldo positiboa du.

## d) BEZa

BEZa dela-eta bildutako kopuruak gora egin du nabarmen, 6,2 milioi eurotik aurten bildutako 63,3 milioietara igaro da; iaz gertatutakoaren kontrakoa. Bilakaera positiboa bildutako kopuru gordinaren gehikuntzaren ondorioa da: 51,1 milioi eurotik 135,5 milioi eurora igo da; itzulitako kopuruen gehikuntza, berriz, txikiagoa izan da (% 60,9).

## e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 84,3 egin du behera zerga berezien diru-bilketak, diru-bilketa gordinean antzeko jaitsiera izan da. Bildutako kopuruak behera egin du edari alkoholdunen kasuan (-% 94,2), hidrokarburoetan (-% 94,8), garagardoan (-% 39,4) eta elektrizitatearen kasuan (-% 88,9); apur bat igo den bakarra tabako-laboreei dagokiona da (% 5,1).

### f) Gainerako zeharkako zergak

Zeharkako gainerako zergen kasuan, % 19,3 jaitsi da, guztira. Zehazki, zerga hauek direla-eta bildutako kopurua jaitsi da: garraiobide batzuen gaineko zerga (-% 22,0), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga (- % 98,2), aseguru-primen gaineko zerga (-% 86,1) eta jokoen gaineko zerga (-% 59,4). Aitzitik, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan bildutako kopuruak gora egin du, bere bi zerga-egitateen kasuan (% 33,5 eta % 45,6).

### g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasei eta beste sarrera batzuei dagokienez, % 48,7 gutxiago bildu da: iaz, 4,0 milioi euro bildu ziren, eta, aurten, 2,0 milioi bildu dira orain arte. Jokoaren ziozko tasak -% 91,1eko jaitsiera izan du, haren osagai guztiek ageri dutenaren isla. Zehazki, bildutako kopuruak behera egin du: makina eta tresna automatikoen kasuan (-% 92,3), bingo-jokoaren kasuan (-% 92,0) eta boleto eta bestelako apustuen kasuan (-% 89,0).

III. kapituluko gainerako kontzeptuen kasuan ere, jaitsiera orokortua jazo da, bai tributu-zehapenetan (-% 38,7), bai eta beradutze-interesetan (-% 12,5) eta premiamenduzko errekarguetan (-% 0,8) ere.

### h) Estatuarekin egindako doikuntzak

Gorago esan den bezala, apirilera arte ez dira egiten urteko lehen doikuntzak.

**TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA.** Aurreko ekitaldiarekiko konp.
**RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS.** Comparación ej. anterior

# 2022

Aldia: urtarrila
Periodo: enero

( euroak / euros)

| Deskribapena *Descripción* | Bilketa Garbia *Recaudación Neta* *2022* | *2021* | Diferentzia *Diferencia* | Gehik *%Incr* | Bilk.Aurrek *Pto.Recaud.* | Bet.% *%Ejec* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / *RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO* | 215.527.214 | 547.311.867 | -331.784.653 | -60,6 | 3.020.000.000 | 7,1 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO* | 433.233 | 24.905.161 | -24.471.928 | -98,3 | 88.000.000 | 0,5 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO* | 758.509 | 8.224.279 | -7.465.770 | -90,8 | 48.000.000 | 1,6 |
| ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / *RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES* | 801.557 | 3.545.605 | -2.744.048 | -77,4 | 32.000.000 | 2,5 |
| SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / *GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS* | | | | | 25.000.000 | |
| LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / *FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS* | 1.690.323 | 15.717.073 | -14.026.750 | -89,2 | 80.000.000 | 2,1 |
| PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / *CUOTA DIFERENCIAL IRPF* | 1.520.339 | 1.560.578 | -40.239 | -2,6 | -11.000.000 | * |
| **PFEZ GUZTIRA / *TOTAL I.R.P.F.*** | **220.731.175** | **601.264.563** | **-380.533.388** | **-63,3** | **3.282.000.000** | **6,7** |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO* | 433.233 | 24.905.150 | -24.471.918 | -98,3 | 88.000.000 | 0,5 |
| ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / *RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO* | 758.496 | 8.224.215 | -7.465.718 | -90,8 | 48.000.000 | 1,6 |
| ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / *RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES* | 801.557 | 3.545.604 | -2.744.047 | -77,4 | 32.000.000 | 2,5 |
| SOZIETATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / *CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES* | 5.185.581 | 5.904.750 | -719.169 | -12,2 | 451.000.000 | 1,1 |
| BALANTZE-EGUNERATZEA / *ACTUALIZACIÓN DE BALANCES* | | | | | | |
| **SOZIETATEAK GUZTIRA / *TOTAL SOCIEDADES*** | **7.178.868** | **42.579.720** | **-35.400.852** | **-83,1** | **619.000.000** | **1,2** |
| EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN G/Z / *IMPUESTO S/RENTA NO RESIDENTES* | 205.033 | 1.589.634 | -1.384.601 | -87,1 | 24.300.000 | 0,8 |
| OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN G/Z / *IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES* | 5.255.836 | 6.058.736 | -802.900 | -13,3 | 86.400.000 | 6,1 |
| ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / *IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO* | 278.673 | 178.222 | 100.451 | 56,4 | 82.000.000 | 0,3 |
| KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN G/Z / *IMPTO.S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO* | | | | | 17.300.000 | |
| ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN G/Z / *IMPTO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA* | 50.087 | -771.149 | 821.236 | 106,5 | 20.000.000 | 0,3 |
| IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / *IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS* | | | | | | |
| **BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS*** | **5.789.629** | **7.055.443** | **-1.265.814** | **-17,9** | **230.000.000** | **2,5** |
| **ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS*** | **233.699.672** | **650.899.726** | **-417.200.054** | **-64,1** | **4.131.000.000** | **5,7** |
| BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / *IVA GESTIÓN PROPIA* | 63.299.266 | 6.216.843 | 57.082.423 | 918,2 | 2.069.013.400 | 3,1 |
| EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / *IVA AJUSTE LEY APORTACIONES* | | | | | | |
| ONDARE ESKUALDAKETEN G/Z / *IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES* | 5.960.203 | 4.463.644 | 1.496.559 | 33,5 | 92.000.000 | 6,5 |
| EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN G/Z / *IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS* | 2.155.628 | 1.480.412 | 675.215 | 45,6 | 19.500.000 | 11,1 |
| GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN G/Z / *IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE* | 704.064 | 902.756 | -198.693 | -22,0 | 12.000.000 | 5,9 |
| ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / *IMPTOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA* | | | | | | |
| ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / *ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS* | 1.115 | 19.111 | -17.996 | -94,2 | 1.873.963 | 0,1 |
| TARTEKO EKOIZKINAK / *PRODUCTOS INTERMEDIOS* | | 15 | -15 | | 141.637 | |
| HIDROKARBUROAK / *HIDROCARBUROS* | | | | | | |
| Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / *Op. interiores(excl.Tipo autonómico)* | 5.576.624 | 107.990.621 | -102.413.996 | -94,8 | 793.642.500 | 0,7 |
| Tasa autonomikoa / *Tipo autonómico* | | | | | | |
| TABAKO LANAK / *LABORES DE TABACO* | 13.446.330 | 12.794.191 | 652.139 | 5,1 | 171.326.000 | 7,8 |
| GARAGARDOA / *CERVEZA* | 1.117 | 1.843 | -726 | -39,4 | 1.007.800 | 0,1 |
| ELEKTRIZITATEA / *ELECTRICIDAD* | 261.468 | 2.360.964 | -2.099.496 | -88,9 | 24.691.100 | 1,1 |
| HIDROKARBUROEN TXIKIZKAKO SALMENTEN G/Z / *IMPTO.S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS* | | -637 | 637 | | | |
| ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / *IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS* | 547.967 | 3.955.300 | -3.407.332 | -86,1 | 52.000.000 | 1,1 |
| JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / *IMPTO.S/ ACTIVIDADES DE JUEGO* | 382.026 | 942.037 | -560.012 | -59,4 | 4.500.000 | 8,5 |
| BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORADUNEN G/Z / *IMPTO.S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO* | 6.266 | 341.826 | -335.560 | -98,2 | 1.300.000 | 0,5 |
| IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / *IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS* | | | | | | |
| **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / *TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS*** | **92.342.073** | **141.468.926** | **-49.126.852** | **-34,7** | **3.242.996.400** | **2,8** |
| JOKO TASAK / *TASAS DE JUEGO* | | | | | | |
| BINGOA / *BINGO* | 10.056 | 126.012 | -115.956 | -92,0 | 1.200.000 | 0,8 |
| MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / *MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS* | 75.367 | 972.997 | -897.630 | -92,3 | 20.000.000 | 0,4 |
| TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / *BOLETOS Y OTRAS APUESTAS* | 64.103 | 581.414 | -517.311 | -89,0 | 3.200.000 | 2,0 |
| **JOKO-TASAK GUZTIRA / *TOTAL TASAS DE JUEGO*** | **149.527** | **1.680.423** | **-1.530.896** | **-91,1** | **24.400.000** | **0,6** |
| PREMIAMENDU ERREKARGUA / *RECARGOS DE APREMIO* | 500.783 | 504.709 | -3.926 | -0,8 | 12.000.000 | 4,2 |
| BERANDUTZA KORRITUAK / *INTERESES DE DEMORA* | 969.113 | 1.107.620 | -138.507 | -12,5 | 17.300.000 | 5,6 |
| ZEHAPENAK / *SANCIONES* | 417.385 | 680.985 | -263.600 | -38,7 | 13.000.000 | 3,2 |
| **TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / *TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS*** | **2.036.808** | **3.973.738** | **-1.936.930** | **-48,7** | **66.700.000** | **3,1** |
| **ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / *TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO*** | **328.078.553** | **796.342.389** | **-468.263.836** | **-58,8** | **7.440.696.400** | **4,4** |
| BEZ: DOIKUNTZAK / *AJUSTES IVA* | | | | | | |
| BEZ INPORTAZIOAK / *IVA IMPORTACIONES* | | | | | 685.304.000 | |
| BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / *IVA OPERACIONES INTERIORES* | | | | | 372.886.000 | |
| **BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / *TOTAL AJUSTES I.V.A.*** | | | | | **1.058.190.000** | |
| ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / *AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES* | | | | | | |
| ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | | | | | 95.741 | |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | | | | | 23.179.400 | |
| HIDROKARBUREN G/Z.B.DOIKUNTZA / *AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | | | | | 10.078 | |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | | | | | -250.438.300 | * |
| TASA AUTONOMIKOA / *TIPO AUTONÓMICO* | | | | | | |
| TABAKO LANEN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/ LABORES DE TABACO* | | | | | | |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | | | | | 15.620.900 | |
| GAGARDOAREN G/Z.B. DOIKUNTZAK / *AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA* | | | | | | |
| INPORTAZIOAK / *IMPORTACIONES* | | | | | 131.014 | |
| BARRUKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES INTERIORES* | | | | | 10.884.240 | |
| **ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / *TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES*** | | | | | **-200.516.927** | * |
| **ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / *TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS*** | **328.078.553** | **796.342.389** | **-468.263.836** | **-58,8** | **8.298.369.473** | **4,0** |